



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteazkena
2010-05-26

VIII. URTEA 2.010. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Udal eta eskoletako langileek kalean zabaldu zituzten euren aldarrikapenak. A. IMAZ

UDAL ETA ESKOLETAKO LANGILEAK KALERA IRTEN DIRA GREBAN

TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA Euskal sindikatuen gehiengoak arlo publikoa «babesteko, garatzeko eta sendotzeko» eskatu du 7

YURRE UGARTE IDAZLEA

«Oraingoan testuari berari eman nahi izan diot garrantzia»

TOLOSA Gidoilariak ipuinez osatutako 'Gasolindegian' nobela argitaratu berri du 4



Uharte-Iruña gainditzeko zaleen laguntza beharko du gaur Leitzak

PILOTA Nafarroako Herriarteko Txapelketako partidak 18:00etan hasiko dira Amazabalen 3

Dantza klasikoaren magia iritsiko da Zerkausira

TOLOSA Naturaldia jardunaldien baitan Gipuzkoako Dantzari Profesionalen Elkartearen emanaldia izango da igandean 12:00etan 2

TITULAZIO OFIZIALAK

ceinpro

ERDI ETA GOI MAILAKO
HEZIKETA ZIKLOAK
DISEINU GRAFIKOAN

INFORMAZIOA 943 310 873
Haber Pasaia 45 - 48908 Bermeo - Bizkaia
Tel. 943 310 873 - Fax 943 310 875 - info@ceinpro.com

Nazioarteko Lehiaketak
Praktikak atzerrian

UNDERO

Laburrak

Pastoral Barrutiko Familien Elkarketa larunbatean

ERLIJIOA ● Haurtzaroko katekesiak deiturik, larunbatean, hilaren 29an, Tolosa eta Ibarrako Pastoral Barrutiko Familien Bigarren Elkarketa egingo dute, 17:00etan hasita, Santa Maria parrokiari. Oitoizaldia egingo dute elizan, eta ondoren, elkarrizketa aretoan.

Asis Sarearen oitoizaldi bilkura, bihar Klarisetan

ERLIJIOA ● Asis Sarearen oitoizaldi bilkura egingo dute bihar Klarisen komentuan, 19:30ean. Informazio gehiagorako, 646 2148 96ra hots egin daiteke asisarea@arantzazu.org helbidera idatzi edo asisarea.org webgunean sartu.

Guara mendilerroa irteera asteburu honetan

MENDIA ● Astebukaera honetan, ostiraletik igandera, Guara mendilerroa joango dira Oargi Mendi elkarkete kideak, arroila batzuk egiteko asmoz. Tolosatik ostiral arratsaldean, hilaren 28an, aterako dira eta aterpetxe batean bi gau igaroko dituzte, ostiralekoa eta larunbatekoa. Bertan erabakiko dute zein arroila jaitsiko dituzten, ura eta eguraldiaren arabera. Irteera jende guztiari zuzendua dago, ez baita beharrezkoa esperientzia izatea. Bestalde, materiala Oargi elkartearen bertan alokatzeko aukera egongo da. Izena emateko 688 69 86 42 telefono zenbakira deitu beharko da, edo bestela oar-gi@euskalnet.net helbidera idatzi.

Naturaldiaren barruan, dantza klasikoa Zerkausian

Dantza » Igandean izango da ikusgai, 12:00etatik aurrera, Gipuzkoako Dantzari Profesionalen Elkartearen eskutik.

eskola teknikoetan egiten diren ariketak egingo dituzte, dantzaren indarra, plastikotasuna eta artea bilduz.

Nisa Goiburuen erakusketa

Bestalde, Nisa Goiburuen *Hala ere, natura gara* erakusketa ekainaren 12ra arte izango da ikusgai Aranburun. Goiburuk berak bisita gidatuak egiten ditu, eta aste honetako bihar izan ordez, etzi izango da, ohi bezala, 19:00etan.

Naturaldia jardunaldien azken ekitaldia azaroaren 9an izango da. Egun horretan Jane Goodall naturalista eta primatologa ingelesak hitzaldia emango du Txillida Lekun. Goodallek ia bizitza osoa igaror du Afrikako txinpantzeen jarraiaztertzen

ERREDAKZIOA

Aurtengo Naturaldia jardunaldien ekitaldiek igandean izango dute jarraipena, Zerkausian izango den dantza erakustaldiarekin. Hain zuzen ere, giza gorputzak, gorputz adierazpenaren forma gisa hartuta, eta dantza klasikoaren magiak izango dira protagonista Gipuzkoako Dantzari Profesionalen Elkartearen eskutik, 12:00etatik aurrera. Gipuzkoako hainbat dantza eskoletako dantzariak barrako



Barrako eskola teknikoetako ariketak egingo dituzte. HITZA

Gidariak behar dira dokumentazioa eta baliagatzen. Postu finkoak erakunde publikoetan. Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

Lan publikoetarako zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenurako langileak behar dira. Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

Telefonistak/harreragileak behar dira eraikin publikoetarako. Postu finkoak. Lanaldi jarraia.

607-25 42 40



Mendi irteera polita Larraitz aldean

ASIA ● Laskorain ikastolako haur, guraso eta langileek ikasturteko hirugarren eta azken mendi irteera egin zuten iragan igandean. Larraitzik Ausa Gaztelu tontorrera igo ziren, goizeko hamarretan Tolosatik abiatuta. Eguerdi alderako tontorrera igo, han hamaiketako

egin, argazki ofiziala atera, eta Larraitzera jaitsi ziren. Han lasai-lasai bazkaldu, eta seiak aldera Tolosaren bueltan. Laskoraingoak «oso gustura» daude, aurten antolatu dituzten hiru mendi irteeretera «inoiz baino lagun gehiago animatu delako». HITZA

Musikaz beteriko asteburua izango da Bonberenean

Musika » Borja Estankona eta Kuntur Lee ostiralean, R eta Humus larunbatean eta igandean Aintzina taldeak ariko dira.



Aintzina musika taldeko kideak. HITZA

ERREDAKZIOA

Astebukaera betea prestatu dute Bonberenean kontzertuei dago-kionean, ostiralean eta larunbatean bina izango baitira, eta igandean zuzeneko emanaldi bat.

Ostiralean Borja Estankona eta Kuntur Lee ariko dira 22:30etik aurrera. Borja Estankona bizkaitararen letrak poesiatik gertu izan dira beti eta musika sentimenduetatik. Bere kitarra jotzeko eran eta ahotsean estilo propioa duen egile bat aurkitzen dugu. Gaur egun bakar-lari proiektuan murgilduta dago, Kepa Elgoibar bateri-jotzailea eta Belauntzako Itxaso Etxebeste baxuarekin batera.


Eurekin batera, Kuntur Lee ariko da. Musikaren lehen pausuk mush taldearekin eman ondoren, DIRTIES punk rock taldean abestu eta esperentzia sikodelikoen ondorioz sortu zen kuntur proiektua.

Bestalde, larunbatean R eta Humus ariko dira 22:30etik aurrera. R Andoaindik dator eta eskarmentu handia du musikari, 1996. urtean

sortu baitzen. Hardcore eta pop doinuak nahasten dituzte. Andoaindarrak bezala, Tolosako Humus taldeak ere Bonbereneako zinguluarekin atera zuen azken diskoa. 1997an sortu zen taldea; metala eta rock gogorra landu izan dituzte, eta azkenaldian 80. hamarkadako rockera hurbidu dira.

Igandean, berriz, Aintzina taldearen zuzeneko saioa izango da, 19:00etan. Bonberenean ez ezik,

www.bonberenea.com webgunean ere jarraitu ahaliko da zuzenean. Aintzina taldeak antzinako euskal musika lantzen du, bere kantu, letratan eta izenean islatzen den bezala. Inoiz grabatu gabeko aspaldiko bitxikeriak ezagutaraztea eta instrumental berriak jotzea doinu herrikoietan oinarrituz dute helburu. Taldean Zigor Sagarna tolosarrak hartzen du parte ahotsa, baxua eta panderoarekin.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Eskubaloiko txapeldunak

TOLOSA • Mutrikun jokatu zen finalera urdiri iritsi ziren Tolosa CF taldeko infantilak. Aurkaria ez zen nolana hikoia, Arrateren izenak oihartzun handia baitu eskubaloi munduan.

Hala eta guztiz ere, 23-30eko emaitza bikainarekin Gipuzkoako Txapelketa Tolosara ekartzea lortu zuten urdinek. Asteburu honetan Euskadikoa jokatuko dute. HITZA



Hirukoan hirugarren taldea

TRIATLOIA • Larunbatean Euskadiko taldeko Triatloi Txapelketa jokatu zen Hondarribian. Mahala-Tolosaldea TT-k3. postua lortu zuen. Regillagak, Vaquerok, Sarasolak, In-

saustik eta Mendizabalek lortu zuten emaitza hori. Kanariar uharteetan berriz, egun berean, Ion Marinek eta Igor Aranburuk Iron Man-a egitea lortu zuten. HITZA

Herriartekoan zaleen laguntza guztia beharko du gaur Leitzak

Pilota » Uhartel-Iruña talde indartsuaren aurka jokatuko dute gaur leitzarrek Amazabalen, 18:00etatik aurrera.

ASIER IMAZ

Leitzarrek partida erabakigarria jokatuko dute gaur Nafarroako Herriarteko Txapelketan. Amazabal pilotalekuan, 18:00etatik aurrera, Uhartel-Iruñearen aurkako partida ikusteko aukera egongo da.

Txapelketa duela hiru aste hasi

zen. Ligaxkako bi partida jokatu ditu Leitzak jadanik eta bietan garaipena lortu dute. Oraingoan ordea, arerio gogorra edukiko dute aurrean; Uhartel-Iruñeak duela bi urte Txapelketatik kanpo utzi zuten Leitzak. Arrazoi guzti hauengatik, Aurrerako arduradunek herriartean babesa eskatu dute. Amazabalen alebinak ekingo diote lehiari. Ondoren infantilek, jubenilek eta nagusiek jokatuko dute.

Ligaxkako multzo bakoitzean, sei herrik hartzen dute parte eta bi onenek bakarrik egingo dute aurrera. Helburu hori lortzeko gaurko partida garrantzitsua izanen da.



Amuarrainak arrantzatuz Orian

TOLOSA • Igandean XXXVI. Infantilen Amuarrain Arrantza Txapelketa Probintziala jokatu zen Oriaiaren inguruan. Tolosan haurrak egun ederra

igarotzeko aukera izan zuten, eguraldia lagun izan baitzuten. Partaideei laguntzeko asmoz guraso asko elkartu ziren kainaren ondoan. SARA GOMEZ



Kadete mailakoak bikain

TOLOSA • TAKEtik eskerrak eman dizkie klubeko partaide guztiei denboraldian egin duten lanagatik. Kadeteen lana ere azpimarratu dute, mailaz igo ostean talde indartsue-

nen aurka emaitza bikainak lortu baitzituzte. Beñat Azaldegi gazteak lortua ere azpimarratu dute. Gipuzkoako eta Euskadiko selezioarekin emaitza handiak lortu baititu. HITZA



Tolosa CF-koen asteburua

TXIRRINDULARITZA • Tolosa CF taldeko Dorleta Eskamendik, larunbatean, junior mailako Euskadiko Txapelketa irabazi zuen eta talde bereko Irene Usabiaga hirugarren gelditu

zen. Igandean Eskamendik Araxes Saria irabazi zuen errepidean, Usabiaga bigarren gelditu zen. Segidan krono eskala jokatu zen eta Eskamendi nagusitu zen berriro. HITZA

E Elkarrizketa**YURRE UGARTE** | Idazlea

Tolosa » «Ipuinez osatutako nobela» argitaratu berri du 'Gasolindegian' izenburupean Yurre Ugarte gidoilari eta idazleak.

IMANOL GARCIA

Hainbat urtetan gidoiak idatzi eta antzerki-produkzioan aritu ondoren, bere lehen liburua argitaratu du Yurre Ugarte (Tolosa, 1965), *Gasolindegian* izenekoa. Telebistaren arloan ibilbide oparoa du. ETBn hasi zen *Penelope Enea* telesailarekin eta gero *Goenkalen* gidoilari eta gidoi-buru izan zen lehen bi urtetan. Madril jarraitu zuen bere lana Zeppelin TV etxean, Tele5, Telemadrid eta TV3 telebista kateentzako saioak egiten. Azken urteak antzezlanen produkzioan eman ditu. «Justu idaztetik bizi ez naizen urte hauetan hasi naiz idazten liburu hau», azaldu du. Halere gidoi gintza ez du alde batera utzi, orain marrazki bizi duden luzemetrai baten gidoiak idazten ari baita.

Gidoiak idaztetik liburua idaztera jauzi egin duzu. Zergatik?

Azken urtetan erabaki nuen testuari berari garrantzia ematea, idaztetik pantailarako izango den ala ez pentsatu gabe.

Eta ipuinak atera zaizkizu.

Nire ideia ipuin sorta bat idaztea zen. Oso argi nuen protagonista zein eta nolakoa izango zen eta ipuinak harilkatuta joango zirela. Batzuetan hari ikusezina eta beste batzuetan hari nabarmena izango zutenak. Nik ipuin bezala eman nizkion editoreari eta berak erabili zuen nobela hitza. Berak esaten du ipuinez osatutako nobela dela eta ni ados nago horrekin.

Eta zein da hain argi zenuen protagonista hori?

Gaur egun oso maiz ematen den pertsonaia bat: zerbaitetarako ikasi duena eta horretan ezin duena lan egin. Arte Ederretan lizentziaduna da, baina lana gasolindegian batean aurkitzen du. Hasieran langabezian dago eta gero hasten da gasolindegian batean lan egiten. Iruditzen zitzaidan gaur egun gure bizitzan gertatzen den paradoxa edo kontraste bat dela. Gauza bat egin nahi duzu, baina beste batetik bizi behar zara. Bestalde, pertsonaia horri gertatzen zaiona gaur egun askori gertatzen zaiona da: bizitza ez dela lineala, zatikatua baizik. Egun baten buruan gauza asko gertatzen zaizkizu edo mundu askotara ireki dezakezu atea. Horiek ziren abiapuntuak. Abiapuntu horiek pertsona bategan islatzea lortu nahi nuen.

Beste pertsonaia bat ere badago, etorkina dena.

Gaur egun nahiko arrunta den abiapuntu baina ere. Pertsonaia



HITZA

«Errealitatetik haratago eraman nahi izaten ditut pertsonaiak»

bat kanpotik etorri dena Euskal Herrira bizitzera. Pertsonaia honen beste puntu bat ematen dio beste pertsonaiari. Bizitzaren auterreak erreakzionatzen duen modua edo arazoak konpontzeko dituen moduak bestearengandik ezberdinak dira.

Pertsonaiak pentsatzerakoan nondik etorri zaizu inspirazioa?

Abiapuntu horrela dagoen norbait ezagutzea izan ohi da edo norbaitek zerbait kontatutakoa. Zuri horrek eramaten zaitu istorio batetara. Orain lau urte idatzi nuen eta *mileurista* bezala irudikatu nuen pertsonaia. Egun egoera aldatu da eta batzuentzat *mileurista*

izatea luxua dela dirudi. Egoera arruntetik abiatzen naiz. Aurreneko orrialdetik ikusten den bezala, egoera arruntak gainditu egiten dira. Errealitatetik haratago eraman nahi izaten ditut pertsonaiak.

Orain lau urte idatzi zenuen eta orain arte ezin izan duzu argitaratu?

Orain lau urte idazten hasi nintzen. Azken lehengorurtean idatzi nuen.

Beraz, pixkanaka joan zara idazten, izan duzun denbora librean. Bai, denbora librean izan da, nire bizitza zatikatu eta ez linealean. **Zer ezberdintasun dago pantailara begira idatzi eta testuan bertan**

zentratzearen artean? Libreago sentitu zara idazterakoan?

Ez dauka zerikusirik. Nik orain askatasun handia sentitu dut eta nahi dudana idatzi dut. Helburua testua zen eta besteetan helburua pantaila zen. Bi idazketa modu oso ezberdinak dira. Egia esan oso gustura sentitu naiz, askatasun handia eman dit.

Gidoiak idazterakoan publikoa izango duzu kontuan. Narrazioa idatzi duzuean izan duzu irakurle motaren bat buruan?

Ipuin hauek idazterakoan nire planteamendua izan da edozeinek irakurri ditzakeela. Hipotesia behintzat da edozeinengan intere-

**» FITXA****'Gasolindegian'**

- **Egilea.** Yurre Ugarte.
- **Argitaletxea.** Alberdania.
- **Generoa.** Narrazioa.
- **Orri kopurua.** 98 orrialde.
- **Salneurria.** Paperezko edizioa 14,50 euro eta edizio digitala 10,15 euro.

sa piztu dezakeela. Orain gutxi aurkeztu genuen eta segituan bidali zidaten mezu bat bideo labur bat egin zutela esateko, *youtube* n zintzilikatu zuten, gainera, gustatu zitzaielako. Garoa liburu-dendak egin du eta harribitxi bat dela esan didate. Beraz, egun gutxitan oso erantzun positiboak ari naiz jasotzen. Interesa baduela pentsatu nuen eta hasieran jendearengana iritsiko ote zen ere pentsatu nuen.

«Egun gutxitan erantzun oso positiboak jaso dit liburuarekin eta hori sari bat baino gehiago da»

«Literatura idazterakoan aurreneko hizkuntza bezala euskara ateratzen zait»

Eta jasotako erantzun horrekin ikusi dut iritsi dela behintzat. Hain denbora gutxian irakurle batek egindako bideoa Interneten izatea niretzako sari bat baino gehiago da.

Aurrera begira pentsatzen duzu narrazioa idazten jarraitzea? Agian nobelaren bat edo antzezlanen bat?

Antzezlan bat badauk idatzita, baina ikusiko dut noiz mugitzen dudana. Jarraituko dut idazten, hori bai. Orain idazten ari naizen gidioak gain idazten jarraitu nahi dut. Ipuin sorta batekin jarraituko dut segur aski.

Euskaraz eta gazteleraz aritzen zara lanean. Zergatik aukeratu duzu zure lehen liburua euskaraz idaztea?

Euskaraz eta gazteleraz moldatzen naiz idazterakoan. Literatura idazterakoan aurreneko hizkuntza bezala euskara ateratzen zait, hala ere.



Trikitixa doinuekin Getxora arte

VILLABONA ● Loatzo Musika Eskolako trikitixa ikasleek igandean izan zen Bizkaiko I. Trikitixa Egunean hartu zuten parte. 10:00etan irten zen autobusa Villabonatik Getxora joateko. 23 trikitilari eta panderojoleko taldea, Maixa eta Aitor irakasleekin joan ziren Bizkaia aldera. «Bertan kaleak girotu genituen 14:30ak arte gu-

txi gorabehera, gero bazkarira joateko. Arratsaldean erromeria izan zen eta ikasle guztiek bertan parte hartu zuten abestiren bat abestuz. Gauetan 20:30ean iritsi ginen Villabonara», azaldu dute irakasleek. Ikasleak, noski, «oso gustura» ibili zirela ere argitu dute irakasleek. **HITZA**

Langileen mugimendua gaur, 20:00etan

Leitza » Kultur Astean murgilduta jarraitzen dute herrian; gaurkoan Goizerder Urtaşunen dokumentalaren txanda da.

ERREDAKZIOA

Pasa den igandean hasitako Kultur Astearekin jarraitzen duten Leitzan. Ekitaldi asko dituzte aurretik, gainera, kulturari eskainitako egunak ekainaren 12a arte luzatuko baitira.

Gaurkoan dokumental baten txanda izango da. 20:00etan Zinemaren Goizerder Urtaşunen *Xime-neiak* dokumentala eskainiko dute, langile mugimenduaren inguruan egindako dokumentala da.

Bihar, berriz, *Ama Dablam* 09 espedizioaren inguruan mintzatu-ko da Juan Maritorea 20:00etan Zinemaren. Ostiralean ekitaldi gehiago izango dira. 17:00etan

haurrentzako joko-jostetak izango dira Aldaia Argandoñaren eskutik plazan eta 20:30ean, hileko azken ostiralaren elkarretaraztea eta gero, Euskal Memoria fundazioaren aurkezpena izango da Jo-xean Agirre idazlearen eskutik Aurrera elkartearen. 23:00etan Okasientes taldearen kontzertua izango da Peritzan.

Larunbatean 14:00etan IKAk antolatuko festa izango da nagusi. XX. urteurrena dute eta kantu bazkaria, ingurutxoa eta bertso saioa izango dituzte. 00:00etatik aurre Gazte Asanbladak antolatutako kontzertuak izango dira Ate-kabeltzen: Errugabe, Sutan eta Fiemo.

Igandean, 09:00etan hasiko dira kultur ekitaldiak. Lehenik eta behin gaiteroen eskutik diana izango da plazatik abiatuta eta herri-ritik barrena ibiliko dira. 11:00etan, aldiz, XXXII. Artisa-azoka ospatuko da herriko plazan.

Urrezko Aizkolaria aurreratu egin da

ERREDAKZIOA

Urrezko Aizkolarien banakako txapelketako finalaurrekoak egun bat aurreratu dira, eta ondorioz, larunbatean, hilak 29, izango dira. Aldaketaren arrazoia ETBren programazio aldaketa izan da. Arabako Burgelu herrian izango

dajardunaldia 18:00etatik aurrera. Lehen saioan Leaburuko Anjel Arrospide ariko da Ugaitz Mugerza II. arekin eta 23 urte azpikoekin Ruben Saralegi eta Ohian Larretxearekin batera.


Finala ekainaren 5ean izango da Azpeitiko Betarran pilotalekuan.



harpidedun izateak badu saria

① Otordua

Leitzako **Iruso jatetxean** 2 pertsonentzako otordua



Iruso Ostetia
Arkiskil, 14 Leitzalarreko errepidea
3880 Leitza
Tel. 948 397035


② Disko sorta

Diska sorta bat (Travellin' Brothers, Bill Lyerly eta Mikel Gaztelumendi)



③ Liburu sorta

Liburu sorta bat (1936ko Gerrako Oroitzapenak, Itzalean eta Loiolako Hegiak)



④ Elastikoak

Realaren igoeraren bi elastiko



Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zein eskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegunean, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.

harpidedunen
TXOKOA hitza

Ibarrako abesbatza berria

ERREDAKZIOA

2009an sortu zen ideia eta proiektu hark ostiralean eman zuen bere lehen emaitza. Ibarrako Kultur Etxean, herritarren aurrean, hamar abestiko errepertorio eskaini baitzuten Ibarrako abesbatza berriko kideek. «Abesbatza osatzeko ideia sortu zenean, zerbait ezberdina egin nahi genuen, herrian elizako abesbatza bakarrik baitago» azaldu du Asun Aranguren, taldeko partaidea.

Hamar abesti

Hamar abestiko errepertorioa euskaraz, ingelesez eta maoriz abestu zuten. Benito Lertxundi, Imanol eta Sorotan Beleren abestiak eta Louis Amstrongen abesti ezagunak kantatu zituzten. Tartean, aipatu bezala, kultura Maoriko beste kantu bat ere kantatu zuten. Eguzki Dorronsorok zuzendu zuen abesbatza eta pianoaren laguntza ere izan zuten.

Hemeretzi laguneko taldea osa-



Ibarrako Kultur Etxean eman zuten lehen kontzertua ostiralean. HITZA

tu dute. Batzuk, musika munduan arituak, beste batzuk aldiz, abestera afizionatuak.

Ostegunero biltzen dira entseguak egitera eta «oso gustura» daudela aipatu dute. Kurtso amaierako emanaldia izan zen ostiralekoa eta urrian berriro hasiko

dira entseguen eta kantu berriak gaineratzen errepertorioa.

Kontzerturik loturik ez duten arren, «ostiralekoa errepikatzen gogoz» daudela ere aipatu dute taldekideek.

Abesbatzari, izena ere, datorren kurtsuan jarriko diote.

Irurako Udalak, begiraleak kontratatuko ditu udaleku irekietarako

ERREDAKZIOA

Udalak, Goiz Pasa udaleku irekietarako begiraleak kontratatuko ditu. Ekainaren 28a eta uztailaren 30a bitartean egingo dira udalekuak, goizez lau orduz, eta herriko haurrentzako da.

Parte hartu ahal izateko beharrezko da 2009ko abenduaren 31rako 18 urte beteak izatea eta euskaraz jakitea: EGA maila edo baliokideren bat.

Hautagaiak aukeratzekoan, aisialdiko edota hezkuntzako ikasketak eta eskarmentua edukitzea kontutan hartuko da. Irura ezagutzea ere baloratuko da.

Interesatuak, kurrikulumak eta gaitasunen egiaztagiriak aurkeztu beharko dituzte maiatzaren 31tik ekainaren 11 bitartean, Udal bulegoetan.

Laburrak

Aizkardik mendi irteera antolatuta du Zuberoara

VILLABONA Arangaitz-Lakarri mendi ibilbidea egingo dute igandean, maiatzak 30ean. 24 kilometroko ibilbidea izango da: Arangaitz-Lexarra-Arhansus-Ugatze-Beluskare-Bostmendieta-Lakarri mendiak zeharkatuko dituzte. 6 ordu inguruko ibilbidea izango da. Olaederra kiroldegitik irtengo dira goizeko seieta. Interesatuak, 649-71 71 82 telefonora deitu behar dute 20:00etatik 22:00ak bitartean edota Aizkardin mendi elkartean bertara jo. Izena emateko azken eguna gaur da.

Malkar Astialdi Taldekoek udalekuetan data aldatu dute

VILLABONA Udalekuetara joateko bi txanda dituzte. Lehenengoan eguna aldatu dute, ekainaren 23an irten beharrean 24an irtengo dira. Bigarren txandakoan eguna ez da aldatu, hauek, uztailaren 4an aterako dira. Azken txanda honetan, oraindik bada tokia. Beraz, norbait interesatua badago Malkar Astialdi taldeko egoitzara joan beharko du.

Berto eta ipuin lehiaketako sari banaketa

VILLABONA Bihar osteguna Gurea zinemaren egingo da bertso eta ipuin lehiaketako sari banaketa. DBHkoei dagokiena 15:00etatik 15:30etara egingo dute. LHkoena berriz, 15:30etatik 16:00etara izango da.

Izaskunen Meza Nagusia igandean

IBARRA Izaskungo Santutegian hilaren 30ean, Meza Nagusia izango da 11:00etatik aurrera. Bertan Santa Maria kaperak abestuko duela argitu dute.

Abesbatza eta kanturako irakaslea behar da

ZIZURKIL Loatzo musika eskolako abesbatza eta kanturako irakaslea behar du. Interesatuak, maiatzaren 30a baino lehen bidali beharko dute kurrikuluma Loatzo musika eskolara edota 943-69 26 19 telefonora deitu.

Askotariko doinuak Idiazabalgo elizan

Alegia » Pop, gospel, tango doinuekin batera euskal kantak abestu zituzten Txintxarri abesbatzako kideek.

ERREDAKZIOA

Txintxarri abesbatza 50. urteurrena ospatzeko ekitaldiz ekitaldi dabil. Idiazabalen eskaini zuten larunbatean kontzertua.

Abesbatza munduan batzutan emanaldiak ez dira oso jendetsuak izaten eta Idiazabalgo kontzertua izan zen adibide horietako bat.

Eguraldi onagatik edo, jendeak nahiago izan zuen beste aukeraren bat egin, eta horren ondorioz, berrogeita hamar bat lagunek entzun zuten Alegiako Txintxarri abesbatzako Idiazabalgo elizan eskainitako emanaldia.

Hala ere, herritarrek gustura entzun zuten Txintxarrikoek prestatutako abesti-sorta. Garbiñe



50 bat lagun bildu ziren larunbatean Idiazabalgo elizan. HITZA

Orbegozoren zuzendaritzapean aritu ziren eta Mariaje Rekondok lagundu zuten pianoan zenbait kantutan.

Zalantzarik gabe, Carlos Gardelen *El día que me quieras* tangoak jaso zituen txalo zaparradarik handienak.

Alegiako traperari eskainitako *Trapu zaharrak* abestiak ere barre algara batzuk sortarazi zituen entzuleen artean. Melankonia puntu bat ere izan zuen kontzertuak Mikel Laboaren *Hegoak ebaki banizkio* eta Migel Mari Azpiazuren *Hego haizea* kantuekin.

Gainerakoan, mugimendu pixka bat jarri zuten gospel eta pop doinuekin.

Kontzertu amaieran, Joxe Mari Gonzalez Bastidaren *Satarra* abestu ondoren, zutik jarri ziren entzuleak abeslari guztiak txalozteko.

Hilberria

JUAN ITURRIOZ MALKORRA
JAUNA
(RAKU TABERNAKOA)

Atzo hil zen, 83 urte zituela. Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Bere emaztea: M^ñ Rosario Goikoetxea; seme-alabak: Begoña eta Juan Arrondo, Iñaki eta Mari Jose Trigoien; bilobak: Ganix, Irati, Ane, Mikel, Ziortza; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela GAUR ASTEAZKENA, arratsaldeko ZAZPIETAN, Tolosako SANTA MARI A parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

TOLOSAN
2010eko
maiatzaren 26a

JUAN ITURRIOZ MALKORRA
JAUNA
(RAKU TABERNAKOA)

-Goian bego-

Zure irriparra eta zure alaitasuna gure artean bizirik diraute.
Ez agurrik, ez adiorik, geroarte baizik.

TOLOSAN
2010eko
maiatzaren 26a

Zure bilobak: Ganix, Irati, Ane, Mikel, Ziortza.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Arlo publikoko langileak kalera irten dira zerbitzu publikoen defentsan

Greba » Tolosaldeko eta Leitzaldeko hainbat ikastetxeetan ez zen klaserik egon atzoko egunean.

ASIERIMAZ

Greba eguna izan zen atzokoa gurean eta Euskal Herriaren hegoaldean. Euskal gehiengo sindikalak zerbitzu publikoen aldeko deialdia luzatu zuen eta besteak beste udal eta eskoletako langileak irten ziren kalera. Tolosaldeko eta Leitzaldeko hainbat udaletxe eta es-

koletan gutxieneko zerbitzuek bakarrik funtzionatu zuten.

Grebaren arrazoiak

Grebarekin bat egin zuten langileak Donostia eta Iruñeko manifestazioetara joan ziren goizean, 11:30ean. Aurrez ordea, Tolosaren kasu, elkarretaratzea egin zuten udaletxearen aurrean.

Greba deitu zuten sindikatuek honela arrazoitu zuten atzoko mobilizazio eguna: «Nafarroako eta EAEko gobernuek bere gain hartu dituzten Espainiako Gobernuaren murrizketa neurriek oso modu larrian eragiten diote euskal jendar-

teari, eta modu berezian zerbitzu publikoei eta bertan lan egiten duten langileei».

«Bertoko herri-administrazioei eskatzen diegu Espainiako gobernua ezarri nahi dituen erabakiei uko egin diezaiztela, ez ditzatela aplikatu, eta gure eskubide sozialak babestu, arlo eta zerbitzu publikoak garatu eta sortzen dugun aberastasuna behar sozialetara bidera dezatela», gaineratu zuten.

Escolen erantzuna

Tolosako Samanengo ikastetxean irakasleak ez ziren grebara irten. Orixen berri, %25ak bat egin

zuen sindikatuen deialdiarekin. Helduen Hezkuntza Iraunkorrean irteera zuten atzokoan eta eragin handiegirik ez zuen izan grebak. Hala eta guztiz ere %15ak bat egin zuten deialdiarekin.

Zizurkilgo Loatzoko Musika Eskolan ez zen klaserik egon atzokoan.

Villabonako Fleming Herri Ikastetxean 25 langilek baiezkoa bozkatu zuten, hiruk ezezkoa eta bik boto txuria eman zuten. Bozketan loteslea zenez grebara irten ziren guztiak. Ondorioz haurrik ez zen agertu atzokoan ikastetxera. Hori bai, gutxieneko zerbitzuen-

gatik bi langilek bertan egon behar izan zuten.

Alegian, Aralar Institutuan, klaseak normaltasunez eman zituzten. Eskolan ordea erabatekoa izan zen greba. Berastegin gauza bera gertatu zen eta ikasleek jai eduki zuten.

Leitzako Erleta Eskolan 26 irakasle daude. Hauetatik 20k greba egin zuten eta lauek ez. Bik gutxieneko zerbitzuak bete behar izan zituzten. 241 ikasletatik 50 baka- rrik joan ziren eskolara. Amazabal Institutuan 32 irakasletatik 10 irten ziren kalera.

Areson 6 langiletatik 5ek grebaren alde egin zuten. Gutxieneko zerbitzuak betez, zuzendariak bertan pasa zuen goiza eta arratsaldea. Haur Hezkuntzakoak goizean normaltasunez eman zituzten klaseak. Arratsaldea berri zuzendariarekin igaro zuten.



Donostiara joan aurretik Tolosako udaletxearen aurrean elkarretaratzea egin zuten arlo publikoko langileak. Villabonako Fleming Herri Ikastetxean ixiltasuna nagusitu zen atzokoan. A. IMAZ

Maite Aranalde Fresneseko kartzelan espetxeratu dute

ERREDAKZIOA

Maite Aranalde ibartarra Fresnesen espetxeratu zuten atzo Mikel Karrerarekin batera. Arkaitz Agirregabiria, berriz, Fleuryra eraman zuten, eta Eñaut Aramendi Sante-ra. Atzo pasa ziren atxilotuak Laurence Le Vert epailearen aurretik eta berak eman zuen espetxeratzeko agindua.

Laetitia Chevalier izan zen pasa den ostegunean Baionan eta Urruñean izandako sarekadan atzemandako bosgarren pertsona, eta hau kargurik gabe utzi dute aske.

Era berean, Eñaut Aramendik Polizia Frantsesaren eskuetan inkomunikaturik egon den egunetan «presio psikologikoak» jasan dituela salatu du.

Euskal sukaldaritzaren errezeta ezagunenak
José Pastilloren eskutik

EUSKARAZKO LEHEN SUKALDARITZA BILDUMAREN 3. alea

berriarekin eskaintza berezia

Aurreko bi aleak ez badituzu eskuratu, eskatu orain. Hirugarren alearekin batera jasoko dituzu.

EGIN ESKAERA ekainaren 11 baino lehen www.berria.info harpidetza@berria.info 943-30 43 45

Aukera ezazu, bizi euskaraz **berria**

Harpidedun egiten bazara aisialdirako **bonu bat opari**

Eroski Bidaiak eta Baskinbox etxean eskutik.

40 eskaintzatik gora aukeratzeko Euskal Herrian zehar. **Gozatu berria**

Hotel bateko egonaldi bat, 2 laguntzako bazkari bat edo abentura eta kirol ekitaldi bat izango duzu aukeran.

HARRERAMENETARAKO
943-30 43 45 • harpidetza@berria.info

Uztailaren 15ean Tenerifeko astebeteko egonaldia zotz egingo dugu BERRIaren harpidedunen artean. Eroski Bidaia- en eskutik.

Orain, beste arrazoi bat BERRIaren harpidedun izateko.

Aukera ezazu, bizi euskaraz **berria**



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



Tolosa Kantari Baionako kaleak alaitzen

TOLOSA • Tolosa Kantari taldeko kideak Baionan izan ziren pasa den larunbatean Baionan Kantuz kantu-jiran parte hartzeko. Bi autobus joan ziren Lapurdiko hiriburura, guztira 100 lagun bilduaz, bai tolosarrak eta baita ibartarrak eta asteasuarrak ere. Kantu-jiraren ondok Baionako parke batean bazkaltzeko aukera ere izan zuten. Era berean, ohiko hitzordua ere iritsi zaie tolosarrei. Izan ere, larunbat honetan Tolosa Kantari izango da 12:00etan Tontokaletik irtenda. Ez dira bakarrik egongo, gainera, Legazpiko Alaitasuna Rondallako 20 lagundik gora etorriko dira eta gitarra eta musika tresnekin. **HITZA**

A Agurrak



Urte askoan Ekiñe!

5 musutxo goxo aitatxo ta amatxoren partez!
Ondo pasa Mari Matrak!!



Urte askoan!

Nerea Irazusta Aristi (Alegia).
Gaur 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat familia osoaren partetik.

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

A Agenda

Musika

■ **Tolosa.** Hernasax eta Tolosax taldeen kontzertua Udal Musika Eskolan 20:00etan Musikaria astearen baitan.

Zinema

■ **Leitza.** *Ximeneiak* Goizeder Urta-sunek egindako langileen mugimenduari buruzko dokumentala Zinemari 20:00etan Kultur Astearen baitan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Etxebeste, J. M. Gernikoko arbola, 3. 943 65 10 45.
■ **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarren, 52. 112.

» TELEBISTA

28 Kanala
08:30. Ur eta lur. **09:00.** Alex eta Alexis. **09:30.** Tolosaldean Gaur.

10:00. Ilargi Coupage. **10:30.** Ilunpean. **11:00.** Azpeitiko Rally Esprinta. **11:30.** Tolosaldean Gaur. **12:00.** Erlo jazz. **12:30.** Iparralde XXI. **13:00.** Muka muka. **13:30.** Tolosaldean Gaur. **14:00.** Ilargi Coupage. **14:30.** Ilunpean. **15:00.** Azpeitiko Rally Esprinta. **15:30.** Tolosaldean Gaur. **16:00.** Erlo jazz. **16:30.** Iparralde XXI. **17:00.** Muka muka. **17:30.** Tolosaldean Gaur. **18:00.** Lekeito zine. **18:30.** On ein! **19:00.** Mendialdean bizi. **19:30.** Tolosaldean Gaur. **20:00.** Ikusmira.

(*16:30etik 20:00etarako blokea lau orduko errepikatuko dute)

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko-hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31880 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:

• N A :

• Lanbidea:

• Jaioteguna:

• Helbidea:

• Herria:

• P,K:

• Tel.:

• Posta elektronikoa:

• Kontu zenbakia: